




ALEA

arabako aldizkaria



SANJOANAK

SUAK PIZTUKO DU UDA



Bizi Berdea





ALEA 198

2019-06-21 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

IREKIA-MIKEL ARRAZOLA

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** San Joan festa Araba osora zabalduko da asteburuon.
- 8 **Protagonista.** Karlos Zurutuza, kazetaria.
- 12 **Iritzia.** Cira Crespo, 'Otsoaren beldur'.
- 14 **Sarean.** #Euskara.
- 15 **Iruditán.** Txondorra piztuta dute Antoñanan.
- 16 **Politika.** Diputazioaren osaketaren zain.
- 18 **Kultura.** Brontze Aroko herrixka baten hondarrak agertu dira Astulezen.
- 20 **Gizartea.** Xabier Fernandez ikertzaileak kukutxeztula aztertu du.
- 22 **Esanak eta laburrak.**
- 24 **Kultura.** Euskal Herria Zuzenean jaialdian aire berriak.
- 25 **Musika.** 'Neko Case', Igor Muñoz.
- 27 **Gure bazterrak.** Lantziego.
- 28 **Denbora-pasa.**
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7.bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Cira Crespo, Igor Muñoz.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Luze joko du urteko gaurik laburrenak

Suaren inguruan bilduko dira hurrengo asteburuan, Europa osoan bezala, Arabako herri askotan. Suak, dantzak, kantzak, zuhaitzaren landaketa eta bestelako tradizioak gaurkotzeko eta berritzeko herritarrek egin duten lanari esker berreskuratu eta mantendu dira San Joan festak gure auzoetan eta herrietan.

Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute.**

Europa osoan piztuko diren suek udaren hasiera iragarriko dute igande iluntzean. Sanjoanak Arabako hainbat herritan ospatzen dira, udaberriari agur esan eta uda ailegatu dela ospatzeko. Solstizioak festa dakar, baita ere, San Joan gauaren aurretik eta biharamunean. Jaia, tradizioa, ohitura zaharrak eta berriak, ospakizun erlijiosoak eta paganoak. Denek bat egiten dute gau batez. Gaurik laburrenetarikoak luze joko du.

Sua da, dudarik gabe, San Joan jaiaren protagonista nagusia. Tradizio pagano zaharra da hori, eta oso errotuta dago gure herrialdean. Suak pizten dira han eta hemen, eta ohikoena sugarren gainetik salto egitea baldin bada ere, txistorrak eta odolkiak egiteko baliatzen dute herri batzuetan sua, eta ikasturteko apunteak erretzeko ere aprobeztatzen dute ikasleek. Suak espirituak uxatzeko balio du, eta purifikatzen duela uste da. Ez soilik gizakiak. Okondon ohikoa zen garai batean ganadua suaren errautsen gainetik pasatzea. Okondoko zaharren arabera, "suak arima duelako".

Orain, herriaren edo auzoaren erdian egiten dira suak Artziniegan, Amurrión, Legutión, Aramaion, Judimendin edo Lakua-Arriagan, baina lehen baserri bakoitzean pizten zen sua. Baserriko jai horien lekukotza jasota dago *Ahotsak.eus* webgunean. Legutioko Maria Jesus Lopez de Bergarak holaxe dio: "Oin, oin eiten dira herri erdian, hemen inguruan eiten da su handi bat, eta *ya esta!* Baiña ni gogoratzen naz, ordun herrian be igual ingo, ingo ziren, baiña ni nere denporan, nere gurasuak eiten aubien beti larreneko inguruak eta dana garbi-garbi egin, da eiten aubien pilla bat, pilla bat, eta gero, harei pilluari ematen zan sua, ta han ibiltzen gitzen jolasten, San Juan su inguruan...".

**"ERROMERIA BATETIK
SORTU ZIREN
JUDIMENDIKO FESTAK,
MODU HERRIKOIAN"**

KOLDO CAMON, JUDIMENDIKO BIZILAGUNA



Legution bezala, Aramaion ere baratza guztietan pizten zuten sua, piztiak uxatzeko. Bertan, gainera, San Joan sortie erretzen zuten, aurreko urtean bedeinkatutako loreekin.

Zadorrako gutuna

San Joan inguruan Gasteizko jairik nagusiena Lakuako landan, Arriagako San Juan ermitaren inguruan ospatzen zuten, XIX. mendean. Erromeria eta suak egiten zituzten bertan, eta hurrengo goizean Arabako Batzar Nagusiak biltzen ziren. Batzarra aire zabalean egiten zuten, eta horretan aukeratzen zituzten urtebetez Araba gobernatuko zuten agintariak. Halaber, Zadorra ibaira gutun bat botatzen zuten agintariek, herrialdeko berezko eskubideak eta foruak aldarrikatzeko: "Paperak ibaian gora egiten ez duen bitartean ez dira Euskal Herriko askatasunak deuseztatuko". Ondoren, festa handi bat egiten zuten. Dantzak, ohorezko salbak eta zezenak ez ziren falta.

Urterik urtera mantendu da Arriagako ermitaren inguruan suak pizteko tradizioa eta agintari politikoak zein erlijiosoak bertara hurbiltzeko ohitura. Gasteizko Judimendin, berriz, herrikoia da festa. Koldo Camon auzokideak azaldu duenez, "erromeria batetik sortu zuten festa modu herrikoian, eta 1975an egin ziren *Polvorin* parkean lehen sanjoanak". Bizilagun talde batek sustatu zituen, auzoa biziberritzeko asmoarekin. Duela bi urte ospatu zuten, gainera, Judimendiko jaietako kuadrillak martxan jarri zirenetik 25 urte. Esperimentu bezala hasi zen, eta arrakasta itzela izan zuen hurrengo hamabi urteetan; 250 lagun baino gehiago biltzera iritsi ziren jaien antolaketan. Egun, Judimendiko sanjoanetara jende andana hurbiltzen da suez eta giroaz gozatzen.

1975. urtean piztu zuten lehen aldiz San Joan sua Judimendin; egun, hiriko jai nagusietakoak dira. IREKIA





Zuhaitza altxatzen, Done Bikendi Haranan. NATOURING



San Joan jaietan dantzak protagonismo handia du Guardian. AFA

VILLABUENAKO HERRITARREK MAKALA ALTXATZEKO OHITURA BERRESKURATU DUTE DUELA URTE GUTXI

edo atearik apaintzeko, eta sendagarri bezala. Eginon ohitura zuten eguzki-loreak jasotzeko San Joan gauaren biharamunean. Gau berean, toki askotan, zuhaitzen adarrak ipintzen zituzten, eskuarki elorri zuria eta lizarra hostoak. Oso ohikoa zen herri guztietan lore sortak jasotzea eta elizara bedeinkatzera eramatea.

Dantzak eta kantuak ere San Joan ospakizunarekin lotuta daude, baina Araban ez dira koreografia asko gorde. Bakarrenetakoak dira Guardiako jai nagusian Katximorroarekin lagunduta egiten dituzten dantza sortak eta kalejira. Hamasei dantzarik parte hartzen dute, zortzi neskek eta zortzi mutilek, eta dultzainaren erritmora dantza egiten dute San Joan bezperan, arratsaldean. Arkuen dantza, Biasteriko jota eta Arbolaren dantza egiten dituzte. XX. mendearen hasieran ezpata-dantza ere dantzatzen omen zuten, baina hura galdu egin zen. Katximorroaren irudiari buruz gehienek gorteko bufoiarekin lotu badute ere, artzainen nagusiaren irudikapen batekin zerikusia izan dezakeela uste dute beste batzuek. ■■■

Sua piztea, baina, ez da San Joan bezperako ohitura bakarra.

Horri eutsi diote herri gehienetan, baina beste tradizio asko galdu egin dira. Landareen artean, zuhaitzek garrantzi berezia dute sasoi honetan. Agurainen eta Done Bikendi Haranan, adibidez, makala altxatu egiten dute plazan udaren etorrera ospatzeko, klimatologiatik babesteko eta uzta ona eskatzeko. Villabuenan ere tradizioa berreskuratu zuten 2016. urtean.

Zuhaitza altxatzeko unea

Done Bikendi Haranan maiatzaren 3an izaten da jaia. Aurreko egunetan zuhaitza bota eta plazara eramaten dute. Bertan azala kentzen diote makalari eta sinbolo batzuk jartzen dizkiote, baita trapu zuri bat eta haize-orratza ere goiko aldean. Agurainen, berriz, gazteak dantzan eta kantuan ibiltzen dira zuhaitzaren inguruan San Joan gauean, eta, ondoren, enborrean gora egiten saiatzen dira. Suak abuztuaren 29an egiten dituzte Agurainen, San Joan Lepamoztuaren jaiarekin batera.

Landareak ere erabili ohi dira sanjoanen bueltan etxeko leihoak

San Joan ukendua

Osagaiak

- Plantaina: hosto osasuntsuak.
- Intsusa: azal berdea (barrualdekoa). Udaberrian, loreak ere erabil daitezke.
- Ilena: loreak.
- Horma belar sendagarria: hostoak eta loreak
- Arrosak: petaloak.
- Izpilikua: loreak.
- Santiago belarra: hostoak eta loreak. Adartxoak kendu behar zaizkio.
- Lapa-belarra: sustraiak. Garbitu egin behar dira. Txikienak (samurrenak) hartzea hobe.
- Zolda-belarra: sustraiak ondo garbitu, lehortu eta xaflatan moztu.
- Iodo-belarra edo zaran belarra: lurgaineko zatia.
- Erromeroa: hostoak eta loreak.
- Milorria: loreak.
- Azeri-buztana: lurgaineko zatia.
- Kamamila: loreak.
- Berbena: adartxoak kendu eta zatitu.
- Ezkaia: hostoak eta loreak.
- Intxaurrondoa: hostoak.
- Pasma-belarra: lurgaineko zatia.
- Zauri-belarra: loreak.



Prestaketa

- Oliba-olioarekin edo almendra olioarekin prestatu behar da. Hasteko, olio berotzen jarri ondoren, landareak bota behar dira bertara. Lehenengo freskoenak eta ur gehien dutenak, ahal den eta azkarren ura lurrundu dadin.
- Su motelean mantendu behar da, landare guztiak gehitu arte. Kolorea hartzen dutenean, sua gutxienez jaitsi, eta ordubetez bertan utzi, noizean behin egurrezko koilararekin nahastuta. Su geldoan gero eta denbora gehiago eduki (7-10 ordu), orduan eta hobeto. Bi egunetan ere egin daiteke. Olioak denbora eta temperatura behar ditu landareen osagaiak xurgatzeko.
- Egindakoan, landareak bitsaderarekin atera, eta eskuz bihurritu, ura kentzeko. Landare hauek hamabost egunez erabil daitezke kataplasmak egiteko, eta izozkailuan ere sar daitezke. Olio oraindik epel dagoenean, nahastu argizari garbia. Argizariak, ondo urtzeko, olio 60 eta 65 gradu artean egotea behar du. Ez erabili parafinarik. Erlategiko argizariak batzuetan parafina eduki ohi du (plastikoa dirudi, ez du usainik, kolorez horixkagoa da).
- Argizari-kopurua pisuaren arabera kalkulatzen da: olio litro bakoitzeko, 125 gramo argizari. Urtutakoan, oraindik epel dagoela, kotoizko oihal batekin iragazi eta poteetan sartzen da. Txikiak badira, hobe. Hozten direnean tapa jarri. Lapikoa (hedoilezina erabili behar da) berehala garbitzea komeni da.
- Leku ilun batean gorde behar da.

"Benetako iraultza ez dago gerra fronteant, atzealdean baizik"

KARLOS ZURUTUZA KAZETARIA

Hamabost urte baino gehiago dira Karlos Zurutuza kazetari donostiarrak Kurdistan lehenengo aldiz zapaldu zuenetik, eta, aldian-aldian bueltatzen da herrialdea eta protagonisten berri izatera. Azken urteetan jasotakoarekin 'Respirando fuego' liburua idatzi du, David Meseguer kazetariarekin elkarlanean.

Testua: **Anakoz Amenabar.**

Nazioarteko fokuak kurduei begira ez zeudenean ere, han zegoen Karlos Zurutuza (Donostia, 1971) kazetaria Ekialde Hurbileko bazter batean eta bestean, Kurdistan-go alderdi politiko, erlijio, antolaketa, kultura eta hizkuntzei buruz ikasten, horiek denak kurduen euren ahotan jasotzen. Haiek dira protagonista, hain zuzen, David Meseguer kazetari valentziarrarekin batera idatzi berri duen *Respirando fuego* (Península argitaletxea) kronika liburuan. Gasteizko Jakintza liburutegian izan da Zurutuza, azken urteetan bildutako esperientziak aurkezten.

Hizkuntzek erakarrita izan zenuen Kurdistanekin lehendabiziko kontaktua, ezta?

Bai, filologia ikasi nuen, eta beti izan nuen jakin-min antropologiko-linguistiko bat. Kazetari izan ez arren, kazetaritzak bidean harrapatu ninduen. Istanbulen turismoa egiten konturatu nintzen kamarero gehienak kurdoak zirela, beraiekin hizketan hasi eta kuriositatea piztu zidaten. 1998. urtea zen hori, eta bueltatu behar nuela erabaki nuen.

Zer aurkitu zenuen Kurdistanen?

Espero ez nuen mosaiko bat topatu nuen. Nire gazte garaian, gainera, ez zegoen hainbesteko sarbiderik internetara, liburuak baino ez, eta hara iritsi eta kolore askotako alfonbra bat aurkitu nuen.

Estaturik gabe, 40 milioi bat lagunekoa herria osatzen dute kurduak.

Estaturik ez, eta autonomiarik ere ez zaie onartu. Eta, hala ere, besteek ez duten programa bat dute kurduak. Pairatu duten guztia asimilazioa izan da, turkiar nazionalismoarena, arabiarrena, persiarrena, islamismoa bere kolore guztietan, alde guztietatik, beraientzako inolako tokirik gabe. Eta beraiek daukaten proiektu horretan, aldiz, kurduak ez ezik gainontzeko herriak ere kabitzen dira. Proiektu hori Rojavan martxan dago; arabiarrek daude kontseiluetan, armeniarrek, kristau asiriarrak... eta kontseiluetan ez ezik, hainbat frontetan izan naiz beraiekin eta hor ere antzeman daiteke nahasketa; Al-Raqan, hain zuzen, fronteant zeuden gehienak arabiarrek ziren, YPG izeneko erakunde militarrean. Horrek erakusten du, estaturik izan ez arren, kurduentzat badagoela alternatiba bat.



Hedabideetako lanekin batera, 'Tripoli-Kabul' eta 'Tierra adentro' kronika liburuak ere argitaratu ditu Zurutuzak. ANDONI LUBAKI

Siriako Kurdistan nabarmendu duzue liburuan, Turkia, Iran edo Iraken aldean. Gakoa al da Siria?

Siriako gerra piztu baino lehen, Siriako Kurdistanen egon nintzen, han nire loturak egin nituen, eta gerrak eztanda egin zuenean nik argi nuen hango historia kontatzen jarraitu nahi nuela. 2011n Alepok eta Damascok bereganatu zuten arreta, baina nik aspalditik garbi nuen bueltatu nahi nuela Kurdistanera. Eta halaxe egin genuen biok, lurraldea askatu bezain laster, 2012ko udan hara joan ginen. David (Meseguer) Afrindik sartu zen, Turkiatik, eta ni Irakeko Kurdistandik.

Eta zer topatu zenuten han?

Beste pelikula bat, zeharo desberdina. Telebistan ikusten genituen suntsipen irudiekin, Alepon, Homsen edota Haman ikusten genuenarekin zerikusirik ez zeukaten. Tiro hotsik ez zen entzuten, eta, aldiz, errautsetatik sortutako gizarte zibil bat genuen parean. Egun batetik bestera martxan ziren kurduerazko lehendabiziko eskolak Sirian, emakumeen lehendabiziko zentroak, urteetan klandestinitatean ibilitako alderdi kurduak... oso momentu polita izan zen. Esango nuke 2012ko uda hartan bizi izan nuela kazetari moduan momentu politenetako bat; suntsipenaren berri

eman beharrean, eraikuntza zen albiste sasoi hartan, nahiz eta medio askok hori ez ikusi. Euskal Herrian bai, hemengo medioekin asko lan egin dut eta ez nuen problemarik izan hori argitaratzeko, baina hemendik kanpo Alepok bereganatzen zuen atentzioa, eta suntsipena zen albiste, ez eraikuntza.

Liburuan erresistentzia eta berriz altxatzeko gaitasuna azpimarratu duzu...

Bai, gure aurrean gertatzen ari zen. Medioek etengabe hango suntsipenaren irudiekin albisteak betetzeak oso kutsu negatiboa ematen du, eta gerrak egon badaude, eta suntsipenak badaude, noski, baina eraikuntza eta beste gauza polit asko ere gertatzen dira, eta askotan ez dugu horren berri ematen.

Gerra frontea baino, atzealdea nabarmendu duzu behin baino gehiagotan.

Jakina. Ni *plumilla* naiz, eta tarteka frontera joaten banaiz ere, denbora gehiena atzealdean ematen dut, eta iraultza hor dago. Jendea borrokatzen leku askotan ikusi dut, Libian, Afganistanen, Iraken... baina benetako iraultza atzealdean ikusten da, eta Siria kurduan da, hain justu, ikusi dudana bakarra.

"Desastrearen voyeurrak", "selfie bila doazen kazetariak"... kazetaritzaren alde ilunago baten berri ere eman duzu liburuan.

Bai, alde hori beti dago. Kazetariok askotan leporatzen diogu sektorearen prekarizazioa editoreei eta medioei, eta jakina egin behar dela, baina askotan gu geu gara errudunak ere, askotan ego hutsagatik. Ordainsari onartezinak onartzen ditugu publikatzearen bakarrik eta gure izena paperean ikustearren, eta hori oso kutsagarria da. Bestalde, badirudi kazetari asko kazetariak dauden tokietara joaten direla beti, eta niri kontrakoa gertatzen zait; kontatu ez den istorio bat kontatu nahi dut.

Herritarrak arriskuan jartzeko kezka ere aipatu duzu. Iturria babestea da hartu beharreko lehendabiziko neurria. Ezin dugu jendea arriskuan jarri erreportaje batengatik, guk joan-etorria egiten dugulako, baina jendea han geratzen delako. Eta bereziki zaila izan da lana Iranen.

Emakume kurduen papera hemendik mitifikatu egin dela esan duzu.

Uste dut hemendik proiektatu dela, eta proiektatzen ari garela. Ikusi nahi genukeen gizarte anarkista eta libertario ideala ikusten ari gara hemendik, gizarte feminista ideala. Hemen lortu ez duguna han egun batetik bestera lortzea, gerra baten erdian. Han egindako iraultza eta aurrerapen horiek hango testuinguruan ulertu behar dira, eta orduan jabetuko gara nolako aurrerapausoa eman den. Egoera horretatik esaten diren gauza asko esatera salto handia dago. Meriturik kendu gabe esaten dut.

Zein da Kurdistanentzat une honetan oztopo nagusia?

Recep Tayyip Erdogan Turkian sortzen ari den erregimena, zalantzarik gabe. Estatu Islamikoa, Bashar al-Asad eta beste batzuk ere oztopoa dira, jakina, baina bai kurduentzat eta baita eskualde osoarentzat ere, Ekialde Hurbil osoarentzat, Turkiako erregimena da arrisku nagusia.

Europak zer paper du honetan?

Eskuak lotuta dauzka. Erdoganek etorkinekin egindakoa ikusi genuen 2014an, kanpamenduak ireki eta Europarantz zihoan jende oldea sortu zuen, nolabait Europari abisu bat eginez; garita ixteagatik, Europak Ankarari 6.000 milioi euro ordaindu zizkion. Beste baldintzetako bat badirudi dela kurduen kontra egiten den guztiaren berri ez ematea, ez salatzea; hori 2015eko oldarraldi hartan ikusi genuen, Turkiako Kurdistango hiri handi asko partzialki suntsitu zituzten, eta Europak ez zuen txintik esan.



Jakintza liburu-dendan egindako aurkezpena. JAKINTZA

"ERDOGAN TURKIAN SORTZEN ARI DEN ERREGIMENA DA, ZALANTZARIK GABE, OZTOPO NAGUSIA"

"TIRO HOTSİK EZ, ETA, ALDIZ, ERRAUTSETATİK SORTUTAKO GIZARTEA GENUEN PAREAN"

"İKUSI NAHI GENUKEEN GIZARTE ANARKISTA ETA LIBERTARIO IDEALA İKUSTEN ARI GARA HEMENDİK"

Bienbitartean, Abdullah Ocalan agintari kurduak espetxean jarraitzen du.

Ekialde Hurbilean lidergoaren pertsonifikazioa oso nabarmena da, eta baita kurduengan ere. Bera da buruzagia. Espetxean dago eta badirudi ezin duela gauza asko egin, baina askotan oztopoa ere bilakatu ez ote den pentsatzen dut, aurrerapausoak emateko oztopoa. Öcalan aska-

Otsoaren beldur



GIRA CRESPO

HISTORIALARIA

Oraindik, 2019ko udaberrian, gure alabak ia egunero galdetzen digu non bizi den otsoa; gure etxetik gertu ala urrun? Lasaitzeko, otsoa oso urrun bizi dela erantzun behar izaten diogu beti.

Otsoa animalia bat da, eta baita gure beldur atabikoen pertsonifikazioa ere. Hori bere kontra doa. Egun hauetan otsoaren inguruko berri batzuk ari dira ateratzen. Esate baterako, Iberiar penintsulan oso otso gutxi daudela eta ekologistek berriz sartu nahi dutela, eta honen aurrean beldur atabiko hauek eta kapitalismoaren praktikak agertzen dira.

Ganaduzaleek eta artzainek beldurra daukate, otso hiltzailearen beldur dira. Gaztela-Mantxako agintariek muturreko irtenbidea eman diote: eskopetak banatu eta ikusten badute, tiroz jo eta akabatu. Ekologistek eta abeltzain batzuek, berriz, irtenbide baketsua proposatzen dute, beraientzako otsoa ez baita arazo handiena. Abereak bakarrik daudenean soilik egiten diete eraso otsoek, eta hortxe dago koxka: gaur egun, ganadua bakarrik denbora asko egoten da mendian, jabeek beste lan batzuk dauzkatelako. Horregatik aipatu dut lehen kapitalismoa, gaurko praktika ekonomikoek horretara bultzatzen dituztelako abeltzainak: lan produktiboagoa egitera (kamioia gidatu, fabrika lan egin, eta abar). Beraz, ganadua ez dago lehen bazala zainduta.

Otsoei esker, ganaduzaleak ganaduaren gainean egon eta zaintza gehiago behar dutela ikusten ari dira. Horregatik, otsoak dauden lurraldeetan ohiturak aldatzen ari dira: ganadua ez da inoiz bakarrik gelditzen eta mastin txakurrak berreskuratzen ari dira, oso egokiak baitira otsoen aurrean. Horrela, otsoa ez da hurbiltzen eta, bide batez, abereen emankortasuna nabarmen hazten da. Ardiak eta behiak elkarren konpainian hobeto daude.

Ez al da berezia ikustea nola konpobidea, berriro ere, zaintza den? Zaindu ondo, denbora hartu eta arduratsu izan. Izan ere, bizitzaren alde handi bat lana ondo egitea da. Nik nire moduan egingo dut eta nire umeen beldurren ardura hartuko dut. Bitartean, agian artzain batzuk ardiak zaintzen eongo dira. Zorte on, lankideok, ez da batere lan erraza. ■■■

**OHITURAK ALDATZEN
ARI DIRA: ABEREAK EZ
DIRA INOIZ BAKARRIK
GERATZEN, ETA OTSOAK
EZ DIRA GERTURATZEN**



Izan
zaitez
ALEAkide



alea.eus/harpidetzak

SAREAN

@ANAMENABAR

#Euskara

Berriz ere euskara, berriz ere salaketa. Rober Gutierrez Bai Euskarari elkartearen zuzendariak jarri du mahai gainean oraingoan. Arabako Saskibaloia Federazioak denboraldi honetako eskola-kiroleko kategoria guztietako txapeldunak eta txapeldunordeak saritu zituen larunbatean: dena gaztelera hutsez. Aldundiko eta Udaleko ordezkariak aurrean zirela, gaztelania baino ez zuten entzun Arabako hainbat eskola eta ikastolako haurrek. ■■■



ROBER GUTIERREZ
@robergutierrez

Ekitaldia, hasi eta buka, gaztelera hutsez izan zen. Euskaraz bakarra "eskerrik asko" izan zen. Seguru asko, Saskibaloia Federazioarentzat ez dauka inolako garrantzirik era honetako ekitaldi batean euskara erabiltzeak...



JORDI REZOLA
@martin_rezola

Kirol giro horretan ontzen dira geroko harreman-sare asko. Entrenamenduak, asteburuetak lehiaketak, whatsapp taldeak... hor sozializatzen dira gazteak. Giltzarria da.



ASIER ETXENIKE
@Etxenike_

Esango nuke Araban eta Gasteizen bereziki badagoela kristalezko sabai bat euskaldunontzat ere. Eta horrelakoetan nabaritzen da.



ESTITXU BREÑAS
@EstitxuB

Tamalgarria eta lotsagarria 21. mendean oraindik ere erakundeen partetik halakoak gertatzea!!!



KIKE FDZ. DE PINEDO
@KikeFdzdePinedo

Federazioarena gaizki. Udala eta Diputazioarena okerrago. Betikoa, euskara eskolan bai, hortik kanpo, gazteen gustuko kontuetan, gaztelania.





Txondorra piztuta dute Antoñanan

Koldo Berrueteren eskutik, Mendialdeko ikazkinen aspaldiko ogibidea berreskuratu dute egunotan Antoñanan. Goiko irudian agertzen den Zuñiga (Nafarroa) herriko ikazkin eta *Tasio* pelikulako protagonista ezagunaren anai Luis Ochoa de Ocarizen gidaritzapean, txondorra egin dute herritarrek, ekainaren 8tik piztuta dutena. Larunbatean, hilaren 22an, jasoko dute egur-ikatzia; horretarako, inguruko basoetatik jasotako 4 tona egur erretzen dabilta. Egun bat lehenago, ostiralean, ogibideari buruzko antzezlan egingo dute bertakoek, txondorraren inguruan; 21:00etan jarri dute hitzordua.
Argazkia: Koldo Berruete.



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**



EAJ, PSE-EE, EH Bildu eta PP taldeko ordezkariak osatzen dute Arabako Batzar Nagusietako Mahaia. BATZAR NAGUSIAK

Diputazioa osatzeko zain

Arabako Udalak eta Batzar Nagusiak eratuta, Foru Aldundia geratzen da orain. Aurreikuspenen arabera, ekaina amaitu aurretik izendatu dezakete Ramiro Gonzalez berriro ere diputatu nagusi.

A. MARTINEZ DE LUNA/ M. BITERI

Dagoeneko osatu dituzte Arabako Batzar Nagusiak eta herrialdeko udalak. Foru erakundea izan zen legealdi berriari hasiera eman zion lehena, pasa den ostiralean. Ez zen ezustekorik izan eta aurreikusit bezala, EAJ, PSE-EE, EH Bildu eta PP taldeetako kideekin osatu zen Batzar Nagusietako Mahaia. Datozen lau urteotan, Pedro Elozegi jeltzalea izango da berriro ere presidente, EAJren eta PSE-EEren botoei esker; presidenteordetza

Josu Lopez Ubierna sozialistaren eskuetan geratu da, esandako bi alderdien arteko akordioa dela eta.

Mahaiko bigarren presidenteordetza EH Bilduko Nerea Martinez Cerrillori egokitu zaio 16 botorekin: EH Bilduko 12 eta Ahal Duguko 4. Idazkaritzen kasuan, PSE-EEk lortu du lehenengoa eta PPko Marta Alañak bigarrena bere alderdiaren, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin. Ostiraleko saioan, bi alderdi horien jarrera salatu zuen Ahal Duguko eledun Arantza

Abeziak, Mahaitik kanpo utzi dituztelako.

Batzar Nagusiak osatu ostean, batzarkideen bateraezintasunak aztertuko dituen batzarra deitu dute hilaren 25rako, eta horrenbestez, litekeena da Ramiro Gonzalez jeltzaleak ekaina amaitu baino lehen hartzea ostera ere ahalzun nagusi kargua.

Samaniegoren, ezustekoa

Egun bat beranduago, ekainaren 15ean, osatu ziren herrialdeko 53 udalak. Sorpresa esanguratsuena Samaniegon eman zen, izan ere, PSE-EEko Eduardo Pascual zinegotziak hautsi egin zuen EAJrekin duen ituna eta EH Bilduko hauta-

**JELTZALEEK 32
ALKATETZA LORTU
DITUZTE; EH BILDUK
11; INDEPENDENTEEK
7; PPK 2; ETA PSEK 1**

gaia babestu zuen bozkan; horri esker eskuratu du Pili Garmendiak bertako alkatetza.

Samaniego ez zen jeltzaleen eta sozialisten arteko hitzarmena errespetatu ez zen udalerri bakarra, Iruña Okan ere abstenitu egin ziren-eta EAJko zinegotziak. Horrek, baina, ez zuen eraginik izan eta Javier Martinez sozialistak makilari eutsi egin dio agintaldi hone-tan ere.

Aipatutakoez gain, bestelako hainbat aipamen ere utzi zituen egunak; tartean, udal hauteskun-deetan Bastidan eta Guardian PP alderdi bozkatuena izan bazen ere, EAJk lortu dituela bi udale-rrietako alkatetzak, EH Bilduren aldeko botoei esker. Kuartangon, berriz, PPK izan zuen giltza; maia-tzaren 26an, boto kopuru berdi-na lortu zuten EH Bilduk eta EAJk, eta hautagai jeltzaleak zinegotzi popularraren babesia izan zuen.

Zigoitian, bestalde, eskuz alda-tuko da Udala; sozialisten eta jeltzaleen akordioari esker, Udala EAJko hautagai Javier Gorbeñak hartu duelako makila, aurreko agintaldian alkatetza izan zuen alderdi abertzalearen kaltetan.


Trebiñuko barrendegian ere al-daketak daude. Argantzonen EH Bilduk eskuratu du alkatetza, Pa-blo Ortiz de Latierro buru; Trebiñun, udal hauteskundetan hirugarren indarra izan bazen ere, EAJko Kike Barbadillok lortu du agintea, in-dependente eta EH Bilduri esker.

Gasteizen, Urtaran bigarren

Gasteizen, beste alde batetik, Gor-ka Urtaran izendatu dute alkate, bigarren. Urtaranek EAJko 7 zinegotzien eta PSE-EEko 6 or-dezkarien babesia jaso du, baina ez zuen gehiengorik lortu. Bi al-derdiek banatu dituzte dagoene-ko ardurak. EAJ arlo hauetaz ar-duratuko da: alkatetza, ogasuna,

giza baliabideak, lurraldea eta klimaren aldeko ekintza, mugi-kortasuna eta espazio Publikoa, eta kirola eta osasuna. PSE-EE, berriz, beste hauetaz: ekonomia sustapena, enplegua, merkataritza eta turismoa, gizarte politikak, adinekoak eta haurrak, herritarren segurtasuna, udal administrazioa, herritarren partaidetza, garden-tasuna eta gizarte etxeak, eta kul-tura eta hezkuntza.

Arabako mapa politiko berri-ri erreparatuta, EAJ da datozen lau urteotan udalerri gehien gi-datuko dituen: 53tik 32 geratu dira jeltzaleen esku. EH Bilduk 11 gobernatuko ditu; talde inde-pendenteek 6; PPK bi; eta PSEk bakarra. Zinegotziei dagokionez, EAJk 191 ditu; EH Bilduk 117; independenteek 53; PPK 36; PSEk 28; eta Elkarrekin Podemosek 4. Denera, 429 zinegotzi.





Labe txiki baten hondarrak aurkitu dituzte Astulezko aztarnategian, eta inguruan zeramika pieza ugari. PHOT.OK

Brontze aroko egiturak airean

Astulez eta Mioma lotzeko bidearen konponketa lanetan aurkitu dituzte Brontze Aroko etxola bat eta labe txiki baten hondarrak Ondare Babesako arkeologoek; zeramika kopuru "izugarria" ere topatu dute.

E. UGARTE LZ. DE ARKAUTE ASTULEZ
Duela zortzi urte Paquita Saenz de Urturi arkeologoak egin zituen indusketen emaitzak berretsi dituzte aste honetan bertan Astulezen, Brontze Aroko etxola bat, labe txiki bat eta zeramika zati kopuru "izugarria" aurkitu baitituzte herriko gazteluaren muinoaren beheko aldean. Ondare Babesa enpresako arkeologoak izan dira bertan lanean azken egunetan, eta aurkikuntzaren

harira, Javier Ajamilek argitu du ez dela ustekaberik izan: "Astulezko gazteluaren azpian dagoen muino osoa balizko arkeologia zonaldea da, eta katalogatuta dago. Azken Brontze arotik I. Burdin arora muinoaren beheko aldea okupatu zuten, terraza artifizialak egokituz, eta bertan bizitokiak eraiki zituzten".

Ajamilek azaldu duenez, Astulez eta Mioma artean bide bat egiten ari dira kamioiak, suhiltzaileak,

eta bizilagunak pasatzeko. Obrak hasi zirenean ikusi zuten orban ilunak ateratzen zirela lurrian, eta material zeramikoko ugari ere agertu zen; hortaz, lanak gelditu zituzten legeak agindu bezala aztarnak induskatu arte.

Etxola, labea eta zeramika

Ondare Babesa enpresari egokitu zaio bertan lan egitea, eta aste-bete pasatxo eman dute Astulezko gazteluak erdian duen muinoaren beheko aldean indusketa egiten. Kolore gorrixka duten zapal dutako buztinezko plakak aurkitu zituzten lehenik, eta horien gainean orban ilunak sua egiten zuten tokietan.

Etxola baten hondakinak ere agertu dira—erdiko zulo handi bat zulo txikiz inguratuta—. Ajamilek azaldu duenez, erdiko zulo handian egurrezko enbor bat jartzen zuten etxola biribila eusteko, eta inguruan dauden zulo txikietan etxolaren teilatua finkatzeko zutabeak.

"AGERIAN DA DENBORA LUZEZ BIZI IZAN DIRELA INGURU HONETAN"


JAVIER AJAMIL, ARKEOLOGOA

Halaber, beste eraikin batzuen aztarnak agertu dira, tartean labe txiki batenak, eta horretan zeramikazko pieza ugari topatu dituzte. "Agerian da hemen denbora luzez bizi izan zirela, zeramikazko pieza kopuru izugarria aurkitu baitugu", esan du Ajamilek.

Etxolaren aztarnak gizakiaren okupazioaren bi garai desberdin erakusten dutela nabarmendu du arkeologoak; hain zuzen, etxola baten gainean eraiki zuten bigarren bat, eta ondoren lurra bota eta hirugarrena eraiki zuten. Hor-taz, litekeena da inguru osoa induskatzen jarraituz gero, eraikin eta azpiegitura gehiago agertzea, baina une honetan errepidearen ibilbidean dagoen zonaldea soilik aztertuko dute. "Oso gutxi induskatu da Gaubean, eta asko dago egiteko oraindik. Paquita Saenz de Urturik lan handia egin du hemen, baina gehiago dago oraindik egiteko", nabarmendu du Ajamilek.

Herrixka bat

Astulezko aztarnategia da Gaubeako ezagunetarikoa, kilometro gutxira dagoen Carancako Burdin Aroko herrixka gotortuarekin batera. Astulezko gazteluaren inguruko terrazetan, erreka-aren parean dagoen muinoan hain zuzen, Brontze arotik I. Burdin Arora herrixka inportante bat izan zen. "Gorabeherak eta aldaketak bizi izan zituen, baina beti mantendu zuten inguru horretan, eta Astulez herriraino zabaldu



Astulezko gazteluaren muinoaren beheko aldean indusketa egin dute. PHOTO. OK

zen". Ez dituzte gizakien arrastorik aurkitu Astulezen, baina ez da harritzekoa, izan ere Ajamilek azaldu duen bezala, garai haietan erraustu egiten zituzten hildako lagunak.

II. Burdin Aroan eta erromanizazioaren aurreneko aldian okupatuta egon zela egiaztatuko lukeen hondakinik ere ez dute topatu, baina Erdi Aroan okupatu zuten

berri, eta garai horretan eraiki zuten gaztelua, inguruko bideak alderik alde kontrolatzeko. Gesaltza Añanako jauna Hijarko Dukearena izan zen gaztelua, eta Astulez ere Gesaltza Añanara bildu zen 1290. urtean. Horregatik hain zuzen, muinoaren goiko terrazetan Erdi Aroko zeramika zatiak aurkitu zituzten duela zortzi bat urte.

"Kukutxeztularen aurrean, ume jaioberriek dute arrisku gehien"

XABIER FERNANDEZ BIOTEKNOLOGIAN IKERTZAILEA

Baionan izan den IkerGazte kongresuan parte hartu du ikertzale amurriarrak, kukutxeztulari buruzko aurkezpen baten bitartez.

JUANMA GALLEGO AMURRIO

Kukutxeztula eragiten duen toxina bat ikertzen dabil Xabier Fernandez bioteknologoa (Amurrio, 1994) Euskal Herriko Unibertsitatean. Gaitza gaur egun oso zabaldua ez badago ere, jaioberriek dute bereziki arrisku gehien, haien sistema immunitarioa guztiz garatu gabe dagoelako. Gaiari buruzko aurkezpena egin du Fernandezek, joan den maiatzaren amaieran Baionan egin duten IkerGazte kongresuan.

Nola izan zenuen IkerGazte kongresuan parte hartzeko aukera?

Egia esanda, eta aurtengoa hiru garren edizioa izan bada ere, ez nuen kongresua ezagutzen. Euskal Herriko Unibertsitatearen bitartez izan nuen horren berri. Baionan izanda, ikusi nuen garestia ateratzen zitzaidala kontua, baina nire laborategiko bi kidek animatu ninduten bertan parte hartzera. Han nire lanari buruzko aurkezpen labur bat egin nuen, eta ikerketa askori buruzko aur-

kezpenak entzun nituen. Oso kontu interesgarriak landu dira bertan, eta asko ikasi dut. Esaterako, aurkezpen batean erakutsi zuten nola erabiltzen ari diren adimen artifiziala Bachen partiturretatik bertso melodiak erauzteko.

Nolakoa izan zen bertan topatu zenuen giroa?

Harrituta eta pozik itzuli naiz bertatik, egun horietan minutu bat ere ez nuelako erdaraz egin. Amurrioren gure adineko guztiok euskarara badakigu, baina seguruaski ez dugu hitz egiten gustatuko litzaigukeen bezain beste. Garrantzitsuena da euskaraz egin dugula, euskaraz ikertzen dugula, eta hori egitea posible dela. Indar erakustaldi moduko bat izan da, adierazteko maila akademikoan ere euskarak balio duela edozein gairi buruz hitz egiteko.

Nola laburbil daitekeen bertan aurkeztu duzun ikerketa?

Gure ikerketa taldean kukutxeztularen eragile den bakterio batek sortzen duen toxina zehatz bat ikertzen ari gara, maila molekularrean. Gaitzak arnas aparatua infektatzen du, eztul handiak eraginda. Lesioak eragin ditzake, baina gaur egun, gure artean bederen, ez da arriskutsua helduentzat. Gutxi badira ere, azken urteetan kasuak igotzen ari dira. Arazoaren muina da helduek hartzen dutela gaixotasuna, urteen poderioz txertoak emandako immunitatea galtzen delako. Helduentzat ez da hilgarria, baina



Euskal Herriko ikertzaile gazteak bildu dira Baionan, esperientziak trukatzeko. UEU

"HARRITUTA ETA POZIK ITZULI NAIZ IKERGAZTE KONGRESUTIK: MINUTU BAKARREAN ERE EZ DUT ERDARAZ EGIN"

gaitza oso kutsakorra da, airetik, eta ume jaio berriek hartzen badute, haientzat bai izan daiteke hilgarria. Esan bezala, kasu gutxi dira, baina heriotza bakarra egongo balitz ere, horri aurre egin behar zaio.

Nola sortzen da gaitza?

Bordetella pertussis izeneko bakterioak eragiten du. Horrek hainbat toxina jariatzen ditu, arnas sisteman bizi ahal izateko. Funtsean, bakterioak gorputza babesten duten immunitate zelulen aurka erabiltzen du toxina hori. Ez da bakterioak darabilen toxina bakarra, baina guri asko interesatzen zaigu, oso funtzio molekular bereziak dituelako. Bi bide erabiltzen ditu. Batetik, gai da zure zelula immunologikoak hiltzeko, pozoiketa moduko baten bidez. Bestetik, zelula horiek zulatzeak aukera du. Toxina batean bi gauza horiek aldi berean egotea ez da oso arrunta. Gainera, pozoiketa hori egiteko daukan metodoa ere nahiko berezia da, eta ez da guztiz ezaguna.

Gaixotasuna ikertzeaz gain, berezitasun horretatik ikerketa lerro berriak aterako al dira?

Hori da asmoa. Izan ere, gaixotasun bera ikertzea baino, guk prozesu konkretu hori ikertzen dugu. Gainera, gure ikerketa taldeak aztertzen duen toxina beharrezkoa da gaixotasuna sortzeko, baina ez guztiz: bakterioak baditu beselako bideak gaitza eragiteko. Baina oso irakaspen onak atera daitezke prozesua aztertuta. Munduan hamar bat talde egongo dira agian mekanismo hori ikertzen. Adibidez, talde bat txerto bat garatzen saiatu zen, baina azkenean txerto horrek ez du funtzionatu. Haien estrategia izan zen arriskutsua zen toxinen zatia kentzea eta beste gauza bat sartzea: konaturatu ziren, bigarren elementu



Bioteknologiaren alorrean ikertzen dabil Xabier Fernandez amurriarra. ALEA

hori ere zelulara sartzen zela. Agian interesgarriena da antzeko proteina berriak aurkitzen badira, horiek nola funtzionatzen duten jakingo dugula.

Biologia molekularra eta biomedikuntzari buruzko masterraren proiektua egiten ari zara orain. Doktoretza egitera animatuko zara?

Bioteknologiako karreratik oso ikuspuntu orokor batekin ateratzen zara: adibidez, badakizu gene bat diseinatzen edota fluido batek nola funtzionatzen duen. Horregatik, nik ez nuke gaizki ikusiko masterraren edukiak karreran sartzea, bost urteko gradu batean. Lanbide honetan botika-industrian, bioteknologiaren alorreko enpresetan edota irakasle modur lan egin dezakezu. Baina, ikertzen jarraitu nahi baduzu, ezinbestean doktoretza egin behar duzu. Arazoa da oso laguntza gutxi daudela hori egiteko. Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan bederen, doktoretza egiteko bekak eta laguntzak oso eskasak dira. Adibidez, Espainiako gobernuak ematen dituen beke-

tara zure burua aurkeztu nahi baduzu, batez bestean zortzi baino goragoko nota izan behar duzu. Hori izena emateko soilik! Oso beka gutxi dira, eta zaila da horiek eskuratzea. Espediente ona izan behar duzu, eta zure ikerketa taldeak proiektu ona eta aurrera egiteko dirua izan behar du; ikerketaren bat argitaratu izana, ingelesa... eta gero kontuan izan behar duzu, beka lortuz gero, 900-1000 euroko dirulaguntza izango duzula hilean, hiruzpalau urtez. Behin bukatuta, doktorea izango zara, bai, baina horrek, berez, ez du ezer esan nahi.

Baina agerikoa da gogoa duzula jarraitzeko. Ez da horrela?

Ikerketaren mundua gogorra da, baina hor dabilen jendea grina handia du. EHUko gure ikerketa zentrorra hurbiltzen bazara konaturatuko zara hor dagoen jendea benetan nahi duelako dagoela han. Nik, momentuz, beka eskatuko dut, eta, ematen badidate, ikertzen jarraituko dut, agian beste ikerketa lerro batean: familia hiperkolesterolemia.

ESANAK



AGLAHUM LAROSI
ERREFUXIATU SAHARARRA

"Okupatatuko Sahara ezkutatu egiten da, ez da gatazka politikoaz hitz egiten"



JUANJO MENA
ORKESTRA ZUZENDARIA

"Auditoriumean 20 bat milioi gastatuko ziren, baina ez dago horren arduradun politikorik"



JOSUNE IRABIEN
AMURRIOKO ALKATEA

"Gizartearen %50 gara emakumeak, eta ardura postuetan egon behar dugu"

ZENBAKITAN

Kasuak

Gurasoeekin indarkeriaz jokatzeko duten nerabeen 38 kasu artatu ditu orain arte Gasteizko Udalak, Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuaren bitartez. Duela bi urte jarri zuten abian programa hori, ordura arte ez zegoelako gurasoen aurkako indarkeria egoeretan garaiz esku hartzeko baliabide espezifikorik. Askotan indarkeria mota hori "ikusezina" dela azaldu du Udalak. Arazoa lantzerakoan, hiru arlo kontuan hartzen dituzte: seme-alabak, gurasoak eta familiak. Nerabeekin gizarte trebetasunak, autokontrolleko jarrerak eta enpatia lantzen dituzte, indarkeriazko-jarrerak horiek saihesteko asmoz.

38

62

Kilometroak

Gasteizko Mendiak probaren XII. edizioa egin dute joan den larunbatean, eta bertan mila lagun inguruk parte hartu dute. Goizeko seieta hasi dute ibilbidea Uribarri Jauregin, eta hamaika mendi tontor gurutzatu dituzte. Sailkapenari dagokionez, gizonen artean Alvaro Ramos gailendu da, eta Lur Basterretxea emakumezkoen artean. Ibilbidea bukatu duten lehen 100 parte-hartzaileek 'Hiru Handiak' proban izena ematean lehentasuna eskuratu dute.

618

Gorpuzkiak

Espainiako Erorien Haranera 618 gorpuzki eraman ziren Arabatik; haietatik, 498 identifikatuta zeuden eta 120 identifikatu gabe. Horrela jaso du Gogorak, Espainiako Erorien Haranera lekualdatutako euskaldunei buruz Eusko Legebiltzarrari helarazitako txosten batean. Adituen arabera, 34.000 gorpu daude bertan. Horietatik bi heren frankistenak dira. Gainerakoek ezezaguna etiketa daramate; identifikatu gabeko errepublikanoak dira.

Amurrion ospatuko da Araba Euskaraz jaiaren hurrengo edizioa

Joan den igandean egin zen Gasteizen Araba Euskaraz, eta Armentia ikastolak Amurrioko Aresketa ikastolari eman dio lekukoa. Hortaz, datorren urtean Aiaraldean ospatuko da jaiak. Aresketa Ikastolako lehendakari Eneko Aldaik datorren urteko jaiari begira aurreratu du helburua izango dela eskualdean euskara bultzatzea, "festa inklusibo baten bidez".



Milaka euskaltzale bildu dira igandean, Araba Euskarazen. ALEA



CSNk jaso ditu irregulartasunak. PHOTO.K

Garroñako erradiazio-dosiei buruzko galdera egin dute Kongresuan

Hilaren 7an ALEAk ezagutarazi zuen CSN Espainiako Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak Garroñako zentral nuklearreko langileek aurreikusitakoa baino erradiazio-dosi gehiago jaso dutela. Gaiari buruzko galdera aurkeztu du Juanxo Lopez de Uralde diputatuak Espainiako Kongresuan. EQUO alderdiko parlamentariak "onartezintzat" jo du gertatutakoa.

Bateriak hobetzeko estrategia berria aurkeztu dute

Nazioarteko kolaborazio baten barruan, CIC Energiguneak bateriak hobetzeko sistema berria aurkeztu du *Nature Communications* aldizkarian. Bateria kargatzen ari den bitartean bere kabuz ordenatzen den materialean datza aurrerapena, eta estrategia berriak baterien ahalmena luzatzeko eta narriadura ekiditeko baliogarria izango dela diote ikertzaileek.

Hirugarren gradua eman diote Ochoa de Eribe presoari

Espainiako Espetxe Zuzendaritzak hirugarren gradua onartu dio gaixotasun larria duen Jose Angel Ochoa de Eribe Landa euskal presoari. 2000ko urtariletik dago preso, 30 urteko zigorra ezarri zioten orduan. 2016an bete zituen zigorraren hiru laurdenak. Ekaitz Samaniego preso gasteiztarra, berriz, Murtzia I espetxetik Zuerara (Zaragoza) mugituko dute.



Gaixo dauden presoek askatasuna aldarrikatu dute sarritan. SARE

Indarberrituta dator EHZ

Nafarroa Behereko Irisarri herrian egingo da ekainaren 28tik 30era EHZ festibala; Euskal Herriko musika eskaintzaren artean, besteak beste, Montauk eta Izaki Gardenak talde arabarrak izango dira.

ERREDAKZIOA ARABA

Euskal Herriko artistak ezagutzera emanez kalitatezko jaialdi "aberats eta anitza" eskaintzea helburua duen egitaraua prestatu dute, beste behin, EHZ festibalaren arduradunek. Hala, rap, rock, pop, reggae eta cumbia doinuek, besteak beste, hiru egunetarako soinu banda osatuko dute. Hilaren 28tik 30era izango da jaialdia – babeslea da ALEA–, Irisarri herrian, Nafarroa Beherean.

Gazte talde baten gidaritzapean dator, gainera, aurtengo edizioa eta, festibalaren beraren filosofiari jarraiki, egungo gazteen behar eta jakin-minera egokitu dute proiektua. EHZ Festibalaren nortasunari eutsi diote, hain

zuzen, bere programazio musikal alternatiboari eta aberatsari. "EHZ ez litzateke deus izanen Euskal Herriko musika talde bikain guzti horiek gabe. Talde ezezagunagoak edo ttikiagoak izanda ere, denak kalitatean handi direla erakutsi dute urtez-urte. Festibalean beti ukan dute nazioartean ezagunago diren artisten ondoan, giro ezin hobean haien eskaintza plazaratzeko".

Aurten, musika talde nagusien artean honako hauek daude: Iseo & Dodosound, Niña Coyote eta Chico Tornado, Willis Drummond, Gari & Maldanbera, Oihan Oliarj-Ines, Ray Fernandez, Anari, Old School Funky Family, Cumbiam'bero, Liher, Izaki gardenak, Koban, Nizuri Tazuneri, Montauk eta Broken

Brothers Brass Band. Zenbait taldek, gainera, obra berriak aurkeztuko dituzte; tartean, Pelax, Rodeo, Alba, Ibil Bedi eta Diabolo Kiwi.

Zirkua edo dantza emanaldiak

Era berean, ikustekoak izango diren emanaldien artean daude, batetik, Toi d'abord zirkoaren ikuskizuna, eta bestetik, Led Silhouette dantza konpainiarena; festibalerako propio sortutako *Orbita* ikuskizuna estreinatuko dute, Gaizka Sarasola musikariaren zuzeneko konposizioak lagun eginda. Egitaraua osatuko dute bertso-poteoak, txarangek, dantzak, erakusketek eta antzerkiek.

Egunero gazteek bizitzen dituzten problematikei buruz gogoetatu ahal izateko gunea da ere festibala. "Horregatik, elkar trukaketa eta hausnarketa aldia ahalbidetuko duen gunea eta tarte bat proposatzen ditugu, eduki politikoari garrantzia nabarmena eskainiz eta formakuntza eskaintza zabal eta aberatsa proposatuz". Nabarmendu dutenez, festibala emakumeen, aniztasunaren eta sexu-askapen eskubideen babes-gunea den heinean, ez da inolaz ere eraso sexista, lesbofobo, homofobo, arrazista edo dena delakorik onartuko.

Antolatzaileen ustetan, 3.500 lagun inguru pasako dira hilaren 28tik 30era bitartean Irisarritik. ■■■



EHZ festibalaren aurreko edizio batean ateratako irudia. EHZ

Neko Case

MUSIKA



IGOR MUÑOZ

MUSIKAZALEA

Udako solstizioa sua piztearekin ospatzen den modu berean, ekaineko asteburu honetan rockzaleak gehien espero duten jaian murgilduko dira Mendizabalako zelaietan. Azkena Rockera hurbilduko diren taldeak ezin dira burbuila ekonomikoaren garaietan ekartzen ziren kartel puxka haiekin alderatu. Hala ere, Gasteizko hotelak betetzeko adina rockzale erakarriko dituzten bandak daude iragarritak. Ukaezina da The B-52's, Stray Cats edo Wilco taldeek duten ospe eta kalitatea; nik, ordea, tarte honetan gure artean hain ezaguna ez den baina AEBetan entzute handiko artista Neko Case aldarrikatu nahi dut.

Badirudi azken urteetan emakumeen partaidetza eskasaren aurka eginiko protestek fruitua eman dutela, eta, apurka bada ere, zerbait nabarmenagoa egiten ari da artista femeninoen parte-hartzea. Beraz, antolatzaileek hobetu dutela, bai. Nahikoa dela? Ez, baina norabide horretan jarraitu beharko dutela argi izan behar dute.

Hala, Neko Case ekartzen asmatu dutela esan dezakegu. Virginiakoa, musikari itzela izateaz gain, nortasun handikoa da, eta bere sare sozialei kasu egiten dion orok berehala antzemango du emakume aldarrikatzailea dela; gehien



N. CASE

kezkatzen duten gauzen artean animalien, herri indigenen eta, nola ez, emakumeen eskubideak daude.

Case 2000. urtean entzun nuen lehendabizikoz *Tierra* aldizkariak zekarren cd bilduma batean. Mundu osoko erritmo ezberdinetan espezializatua zegoen aldizkaria izanik, gure protagonista countryaren belaunaldi berriaren ordezkari gisa sartu zuten diskoan.

Musika estilo ugaritan aritutako artista da Case, ordea.

HASIERAK KANADAKO UNIBERTSITATE GIROKO PUNK TALDEETAN BATERIA JOTZEN EMAN ZITUEN CASEK

Hasierak Kanadako giro unibertsitarioko punk taldeetan batera jotzen eman zituen, ondoren, nolabait miresten zituen Patsy Cline eta Loretta Lynn bidea jarraituta country musikara hurbiltzeko, janzkera retroarekin gainera. Behin, Nashvillen beroak jota abesten zegoela, alkondara kendu eta bularretakoan geratu zen, eta countryaren lobby maskulino tradizionalak ez zion barkatuko eta betiko ukatu zion sarrera musikaren tenplu den hiri hartan. Gertakari hark eraginda akaso, bere musika power pop eta indie rock bezalako soinu modernoagotara bideratu zuen, bai The New Pornographers kanadiarrekin, zein bakarkako ibilbidea eraikitzen.

Musikariak aukeratzetarakoan ere gustu onekoa da Case. Ohiko musikariez gain, AEBetako americana eta rock giroko izen handiez inguratzen da diskoak osatzeko: Calexiko taldeko Joey Burns eta John Convertino, The Sadies, M. Ward, Laura Veirs, KD Lang edo *Hell on* azken diskoan Mark Lanegan bera.

Ekainaren 22an, 20:35etan, abeslari eta gitarra-jotzaile kaskagorria ARFeko *Respect* oholtza gainera igoko zaigu. Aukera ezin hobea haren istorioekin oroimenaren eremu galduetara rock erritmoan bidaiatzeko, Casen hitzak bizitzaz eta sentimenduez mintzatzen baitira. ■



**ITURRIETA
SAGARDOTEGIA**




Bº Arraga, 2 / Aramaio
 ☎ 945 44 53 85 / 685 72 15 93
 jj.iturrieta@Yahoo.com
 iturietasagardotegia.blogspot.com.es



TXOTX EGIN!!



Servicio de autobús
TREBIÑU Sagardotegia
 ☎ 945 244 852-657 736 599 · ASKARTZA-TREBIÑU



Kuartango
 SAGARDOTEGIA

Servicio de autobús
 Zuhatsu-Kuartango 21
 t.699 747 730 · 945 362 683



Arabak,
arabako sagardoa!

'La Palomaren' habia

GURE BAZTERRAK



Lantziego

Kuadrilla: Arabako Errioxa.

Udalerria: Lantziego.

Biztanleak: 618 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Lantziegoko Iradier Salaberri dantza taldeak 40. urteurrena ospatu zuen 2018an.

TESTUA: E. UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

ARGAZKIA: PHOT.OK

Arabako Errioxako erdigune edereenetako bat duen herria da Lantziego. Armarridun etxeak eta jauregiak nagusi dira bertan, eta eraikin errenazentista zein barroko ugari topatuko ditugu kale estuetan. Armendarizko markesaren jauregia nabarmentzen da beste guztien artean; parrokiako eliza ondoan kokatuta dago eta udalaren egoitza da. XVIII. mendeko fatxada miresgarria eta harlanduzko solairuak ditu. Kale nagusian aurkituko dugu, baita ere, udaletxe zaharra, egun ostalari-tza negozio bat dena. Jauregia aurrekoaren data berdinetan eraiki zuten eta teilatu-hegaletan lan ederra du, baita fatxadan armari ikusgarria ere.

Ez dira horiek, ordea, Lantziego herriak dituen etxe ospetsu bakarrak. Elizatik gertu dago seguru asko nazioartean famatuena izan den lantziegar baten etxea: Sebastian

Iradier Salaberri musikariaren bizitokia, alegia.

Gainera, herritarren ofizioekin loturiko ondare industrial handia gorde du Lantziegok. Arabako Errioxako udal olio-errotak bakkarra eta herrialdean kontserbartzaren direnen artean zaharrena da bertakoa. Udalarena da 1913. urtetik,

Eustaquio Alvarez de Eulate jaunaren donazioari esker.

Antzina irina egiteko errota zegoen bertan, eta horren gainean kokatu zuten gaurko olio-errotak. Halaber, mahastiaketa olibondoak nagusi baldin badira ere, teilak ere egiten zituzten Lantziegon, eta Los terreros eremuan dago 1780. urteko teila-fabrika bat eta biltegia. XX. mendean abandonatu zuten, baina ondo gorde dute. Erdigunetik kilometro gutxira daude Asa eta Binasperi auzoak, eta Asan hain zuzen Mantibleko erromatar zubiren hondarrak daude.

Igarobide garrantzitsua izan zen erromatarren garaian, Ebroren biertzak lotzen baitzituen. 164 metro zituen luzerako eta zazpi arku, baina bi soilik daude orain. Binasperin, berriz, ura izan da historikoki diru sarrerarik inportanteena. Iturbegi eta Berbenosako iturriei esker, soroak ureztatzeko haina ur izaten zuten, eta soberan zutena ondoko herriei, baita Logroñori ere saltzen zioten.



Hizki-zopa

EGILEA: URKIDE IKASTETXEA 6.MAILA

Ondoko marrazkiek nolakoak garen adierazten dute. Ezaugarri horietariko bakoitza hizki-zopan aurkitu beharko duzu.



Alaiak



Azkarak



Gizenak

A	J	A	E	B	R	I	D	E	K
H	E	S	G	A	R	A	I	A	K
M	G	K	I	D	K	F	U	Z	G
R	B	A	Z	U	F	S	L	K	H
I	E	R	E	J	T	Z	G	A	K
Z	E	R	N	R	L	M	D	R	H
K	L	E	A	D	K	O	N	R	P
O	M	D	K	A	Z	A	L	A	N
P	N	E	I	N	B	X	P	K	U
I	R	X	T	S	J	R	A	B	A



Indartsuak



Ederrak



Garaiak

Aurkakoak aurkitu

EGILEA: URKIDE IKASTETXEA 6.MAILA

Zutabe batean zein bestean, kontrakoak diren ezaugarriak aurkitu eta elkarren artean lotu behar dituzu.



ARGALA
ESKUZABALA
INDARTSUA
GELPOA
ALTUA
GEZURTIA



ZUHURRA
BAXUA
EGIAZALEA
LODIA
AZKARRA
AHULA



ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozetak



Koikili Aterpetxean **Familia egonaldia**

Otxandion dagoen Koikili Aterpetxean familia egonaldi bat zozkatzen du ALEAk, lau lagunentzako logela batean, gosaria, afaria eta ekintza bat barne. Parte hartu zozketan, ekainaren 26a baino lehen! (***OHARRA***: Bazkide-zenbakirik ez baduzu, 000 idatzi). Hilaren 28an jakinaraziko ditugu irabazleak webgunean eta papereko edizioan.

Irabazleak:

EHZ festibalerako bonoa: Esti Besa Sanchez (Villabuena)

POSTONTZIA

BIDALI ZURE MEZUA: www.alea.eus/zorionagurrak



Izadi Ladron de Gebara **Arratzua-Ubarrundia**

Ekainak 27. Urtebete.
Zorionak Izadi!!! Urtebete iluntasunari argia ematen! Eskerrik asko!.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).



Telefonoz:
945 71 60 09
On-line:
alea.eus/harpidetzak
E-mailez:
harpidetza@alea.eus

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA

Ekainaren 21etik 27ra

Euskararen agenda

MUSIKA

GASTEIZ Tximeleta

Judimendiko jaien barruan.
Igandea 23, 24:00etan, Sefarad plazan.

AGURAIN Ilargi Beltza

San Joan jaien barruan.
Igandea 23, 24:00etan, San Joan plazan.

GASTEIZ Maddi

Ying Yang lana aurkeztuko du.
Asteartea 25, 20:30ean, Parralen.

GASTEIZ Pelax

Ereiaroa zikloari amaiera emango dio Pelax bakarlariak.
Osteguna 27, 19:30ean, Falerinan.

GUARDIA EH Mertxe

Trikoma, Colorado eta beste hainbat taldeekin batera. Guardiako jaien barruan.
Asteazkena 26, 22:30ean, txosnetan.

MURGIA Jurgi Ekiza

Zuia Euskaraz jardueren barruan.
Osteguna 27, 19:30ean, gaztetxean.

DANTZA

GUARDIA San Joan erakustaldia

Herriko dantzarien erakustaldia.
Larunbata 22, 12:30ean, plazan.

MURGIA Dantza plaza

Ordago taldearekin.
Igandea 23, 21:30ean, Bea Murgia plazan.



ANE GEBARA

GASTEIZ Ane Gebara

Judimendiko jaien barruan, umeen eguna ospatuko dute. Ane Gebara ipuin kontalari gasteiztarrekin batera, beste hainbat jarduera izango dira; gargantua, umeentzako zunba, txokolatada eta dantza plaza izango dira egunean zehar. Gauean, berriz, kontzertuak.
Ostirala 21, 17:00etan, parkean.

AMURRIO Dantza saioa

Aiara Dantza taldearen saioa.
Igandea 23, 21:45ean, plazan.

BERTSOLARITZA

ERENTXUN Bertso pilota

Andoni Egaña eta Iratxe Ibarrearekin.
Larunbata 22, 18:00etan.

BESTELAKOAK

GASTEIZ Mintzodromoa

Zabalgana Euskara Taldeak antolatutako jarduera. 'Zabalgana, ondo bizitzeko auzoa ote da?'.
Asteazkena 26, 19:00etan, Bastida plazan.

GASTEIZ Irakurle Kluba

Eider Rodriguezen 'Bihotz handiegia' izango dute solasgai ikasturteko azkeneko Irakurle Klubean.
Osteguna 27, 19:30ean, Ignacio Aldekoa kultur etxean.



FAMILIA IRTEERA

ZIRAUNTZA ITURBURUA

+

MITXARRO MUESEOA



Ekainak 29, larunbata
10:30 - 13:30

Eman izena:
dalbeniz@geuelkartea.eus

688 734 941

INFO+:
geuelkartea.eus

geu
ELKARTEA

MUGAK GAINDITZERA GOAZ

ZUIA EUSKARAZ 2019

GURE HERRIAREN MUGAK,
EUSKARARENAK,
GURE BAITAN DAUDE GEHIENAK,
EUSKARA ZABALDUAZ LAU HAIZEETARA
ZABALAGO EGITEN GARA.

MUGA(k).

Hainbat muga ditugu euskaldunok egunerokotasunean. Lotzen gaituzten mugak, banatzen gaituztenak, itotzen gaituztenak. Zer da iparra eta zer hegaoa?



**Ekainak 29, larunbata
EGUN OSOKO FESTA**

**Jantzi Zuiia Euskarazeko zapia, eta
zatoz, ederto pasako dugu!**



ZUIA EUSKARAZ EGUNA

11:00etan gaztetxean

HAMAIKETAKOA

12:00etan, gaztetxetik plazara

KALEJIRA parte-hartzailea

13:00ean udaletxe plazan

**IKUSKIZUNA, Zuiako kultur taldeen
eskutik**

15:00etan, piszinetan

**HERRI BAZKARIA. Ekarri zure
jatekoa, aukiak, mahala... eta
elkarrekin bazkalduko dugu!**

Bazkalostean

**IRRINTZI LEHIAKETA eta erromeria,
WATSON et NATekin**

..eta 20:30ean

denok Lukianora, DANTZA-PLAZARA!